

## LOIOLA'KO IÑIGORI JAINKOAREN DEIA

### Itz-aurrea

Gure Aita Jainkoak betiraundetik badu izango den personarentzako nor izango den asmoa. Asmo ori egitaratzekoa baldin bada, etortzeko dan orri nolabait jakin erazi bearko zaio; nola bestela *izaki* orrek etorri ala *nor-izan* asmo ori bete? Izanez-izan, *betiraundetiko* asmotan ori nor bakoitzak *izakeraz* egiztatu bearko du.

Bere jatorrizko *zer-izanean*, bakoitzari adierazten zaio dezaken *nor-izana* ere. Adierazgarri dan Espiritu Santu bizi-emailleak izanari izakeran ezaugarri egin dio *nortasun* ori. Nornairen bizibidezko gertakizunik garrantzitsuena auxe da: Espiritu-Santuak ixilpeka bizi-oinkada bakoitzean adierazgarri biurtzen duena, ori ziur entzun eta aditu bear du, orrela bere *nor-izanaren* mugara ziur elduko bait da.

Bizi-bideak, naiz leize zulo-illunpetan jarrai, naiz zelai argintsuenetan zear aurrera jo, badituzte sari askotan bea-jotze uste ezak. Bai leizetan, bai eguzkiargitan, *nor-tasun* eske ta billa abiatu den bidekaria nunnai beaztopatu liteke, bai eta bere bidearen mugara ez eldu.

Loiola'ko Iñigo jaio eta urrengo egunetako baten bataiatua da Erretore zan Zabala'tar Ion'en eskuz: une ortan bereganatu zitzaion Biziemaille dan Espiritu Santua. Lagun bizikide onegaz abiatu zen Iñigo. Umetxo zan Iñigo oraindik, alegia. Geroago Aita Inazio Biziemaille onen eragitez eta bere irakasle adierazle eta aldaerazle maixu bikain gertatuko da.

Gure *nor-izanean* joera asko daramazkigu. Gaitzetik ona banandu bearko da ona, edo onena aukeratzeko.

### 1517. Iñigo'ren ondamena

Amabostenbat urte zituen Iñigok Arevalora bidali zutenean. Ama illa zuen, bai ordea aita bizi.